2017ko OTSAILAREN 2ko OHIKO BILKURAREN LABURPENA

1.- Aurreko bilkuretako aktak irakurri eta onestea.

2016/12/1eko osoko bilkurako akta onetsi da honako zuzenketekin:

EH Bildu Ultzama taldeko Aranguren zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du bigarren puntuan, bere Udalaren zinegotzi kargu hartzean, berak ez zuen akordioan agertzen den zina irakurri Idazkariak baizik, eta berak akordioan agertzen den formulaz berretsi zuen:

"legeak horrela agintzen duelako hitza ematen dut", hau bertaraturako guztien aurrean eginez eta bere karguaz jabetu da.

2016/01/22ko ezohiko osoko bilkurako akta onetsi da.

2.- Behin betiko onestea 2017. urteko ekitaldirako Udal Aurrekontuen Espedientea eta horiek betearazteko oinarriak.

Alkateak andereak gaia azaldu du, aurreko osoko bilkurako hasierako onespenaren ondoren hasierako dokumentuan aldaketa txiki batzuk egin dira, honako puntu hauei dagozkionak:

- Etxebizitza-birgaitzeari dagokion diru-laguntza gastuen partida 2.500 eurotan utzi da.
- Eskola publikoaren konponketei dagozkien gastuen partida 9.500 eurotan utzi da.
- Udalaren kultura ekintzei dagokien gastuen partida 6.800 eurotan utzi da.
- Udal Informazio Buletinaren erredakzioari dagokion gastuen partida 2.200 eurotan utzi da.
- Adierazi du berdinduta geratu dela gastuen eta diru sarreren zenbatekoa.

Gai honen inguruan AU Udal taldeko Erviti zinegotziak hartu du hitza eta bere taldearen aurkako botoa adierazi du eguneko gai zerrendako puntu honi dagokionez jada hasierako onespenaren unean adierazi zituzten arrazoiengatik, eta hauek dira:

- Ezin da kontsideratu aurrekontu parte-hartzaileak direnik, oso berandu bidali zitzaizkielako eta jada eginda eta bukatuta zeudenean.
- Bere edukiari dagokionez, ez da prudentzia printzipioa errespetatzen. Printzipio hau funtsezkoa da aurrekontu publiko guztietan; izan ere gastuak goranzko irizpidearekin eta diru-sarrerak beheranzko irizpidearekin esleitu behar dira, bukaeran deskoadratzeak saihesteko.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez, bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Aurkako botoak: Erviti, Herranz, y Perez Arregui. Botoaren zentzuan justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

3.-Ultzamako Udalaren herrilarreen aprobetxamenduak errentan emateko adjudikazioaren prozedura. 2017 eta 2024 urteen artean. Bidezko erabakiak hartzea.

Alkateak eta Idazkariak gaia azaldu dute.

Bereziki, Idazkariak informatu du alokairuan ateratzen diren bazken azalera ezaugarrien eta erabilgarritasunaren inguruan zalantzarik egon ez dadin, baldintza pleguan espresuki esaten da alokairua "benetako prezioan" egiten dela, hau da, maizterrek badakite alokairuan hartzen dituzten bazken benetako ezaugarriak ezagutzen dituztela eta halaber onartzen dituztela, eta erreklamatzeko eskubiderik egongo ez dela bazka hauen azalera pleguan azaltzen dena baino txikiagoa bada.

Gaiaren inguruko eztabaidarik egon ez denez, aho bate erabaki da.

LEHENA.- Ultzamako Udalaren herrilarreen aprobetxamenduak errentan emateko adjudikazioaren prozedura eta espedienteko dokumentuak onartzea (Baldintza plegua).

4.- Behin betiko onestea hirigintza hitzarmena hirigintzako aprobetxamenduaren %10eko lagapena Udalari dirutan ordaintzeko, hori guztia Zenozko UE-0.7 exekuzio unitateari (5. poligonoko 3030 lurzatia) dagokionez, Eva Egozcue Cenozek eta Pedro Cenoz Iraizozek hala eskaturik.

Alkateak gaia azaldu du.

Gai honen inguruan AU Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta bere udal taldearen aurkako botoa iragarri du gai zerrendako puntu honi dagokionez honako arrazoiengatik: Gaur egungo krisi garaian, Ultzaman etxebizitza berriak eraikitzen ez direnean, eta populazioa jaisten ari denean eta abar, ez dute partekatzen eta gaizki iruditzen zaie hain kantitate altua kobratzea kontzeptu honengatik, unitate honen jabeen aprobetxamendu urbanistikoaren %10eko lagapena, arrazoizko beste konponbide bat bilatu behar zela eta, edozein kasutan, hauekin onberagoa izan behar zela. Halaber, Udalak ez du neurtzen neurri berdinarekin beste gai batean, Udala lurzoru baten jabeei metro karratuko 4 euroko kantitatea eskaitzen ari baitzaie, orain proposatzen dena baino askoz ere baxuagoa dena. Beraz amaitzeko esan du oraingo balioespen hau neurriz kanpokoa dela erabat.

EH Bildu Udal taldeko Picabea zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du halako konparazioak egitea ez dela posiblea gai desberdinak direlako. Beraz derrigortuta daude Arau Urbanistikoen edukiagatik, lur horien kalifikazioa desberdina izatera eta errepidera dagoen distantziagatik ezin dela eraiki eta abar asmoa egurra biltegiratzea dela, besterik gabe, eta gero Biomasa plantaren parean dagoen lur publikoan kokatuko den nabe berrian gordeko dela.

Jarraian berriro AU udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du ez duela ulertzen lurzoru bat erostea bertan ez bada ezer egin behar, hori dirua botatzea dela eta, gainera, arau urbanistikoak aldatu daitezke eta Ultzaman kasu batzuen sententziak egon direla non landa eremuko lurrean eraikitzea lortu baita.

Bi zinegotzien arteko eztabaida sortu da bi aldeetako kritika batzuekin.

Martinez urionabarrenechea alkateak hartu du hitza eta Picabea zinegotziaren hitzak berretsi ditu eta galdetu du ea nondik ekarri duten Udalak lur hori erosi nahi duen "marmar" hori, Perez Arregui zinegotziak erantzun dio horri ez dutela inongo marmarrik ekarri, egoera zehatz erreal eta dokumentatu bat dela, hitzarmen urbanistikoaren dokumentua existitzen dela eta dokumentu horretan kalkulatzen dela aprobetxamenduaren %10 hau eta metro karratuko 135 euroko prezioa, eta bestalde lursail baten erosketa askoz prezio baxuagoan 4 euro metro karratuko.

Eztabaidak jarraitu du eta EH Bildu udal taldeko Picabea zinegotziak hartu du hitza berriro eta adierazi du %10eko aprobetxamenduaren lagapena indarrean dagoen Udal Plan Orokorrean ezarritako zerbait dela unitate konkretu horrentzat, guztia, hirigintza legea betearazten, eta Udalak osoko bilkuran gehiengo osoarekin onartu zuela Udal Plan Orokor hau eta, beraz, honek esaten duena egitea eta aurrera eramatea egokia dela. Azkenik, gehitu du interesdunak ere ados daudela hitzarmen honen edukiarekin eta sinatuta ekarri dute.

Azkenik, AU udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du Udalari derrigorrez ordaindu beharreko lagapen aprobetxamenduaren %10 hori legearen salbuespen bat dela, benetan egokia dena lurraren lagapena baita, honi idazkariak erantzun dio egia dela Ultzaman maiz gertatzen den zerbait dela, hartarako unitate askoz handiagoak exekutatu behar izango zirela non Udalari laga beharreko lurrak etxeren bat edo dotazio interesgarri bat egiteko emango lukeen.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez, bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Aurkako botoak: Erviti, Herranz, y Perez Arregui. Botoaren zentzuan justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

5.- 2017. urtean eman beharreko etxerako epaitzen zozketa.

Alkateak eta idazkariak gaia azaldu dute. Aurten epaitzak markatzeko leku berri bat dago, eta bat dator egurra moztea eta biltzea enpresa profesional baten esku utzi duen jendearekin.

Zozketa egin da.
Gaiaren inguruko eztabaidarik egon ez denez aho batez erabaki da.
Zerrendak akta osoan edo udaletxeko web orrian.

6.- Alkatetzaren informazioak.

Ez dago alkatetzaren informaziorik.

7.- Exekutiboaren kontrola: Aintzat hartzea Alkatetzaren honako ebazpen hauek: 2016ko 231.etik 266.era eta 2017ko 1etik 20ra.

AU Udal taldeko Erviti zinegotziak hainbat ordainagiriren ordainketa hitzartzen den erabakiaz galdetu du ea GENERA eta ENARA enpresa elektrikoei egindako ordainketak zertara datozen eta idazkariak informatu du hauetako bat (ENARA) Biogas plantaren hornikuntza elektrikoa kudeatzen zuena zela, eta bestea (GENERA) produzitutako energia elektrikoaren salmenta kudeatzen zuena zela eta bigarren kasu honetan gertatu dena dela bere garaian behar zena baino diru gehiago eman zigutela eta orain hori itzuli behar izan dugula behin enpresa elekrikoen araudiak ezarritako zenbatekoaren aplikazio kantitatea ezarrita.

8.- Eskaerak eta Galderak.

1.- Galdera: Au Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak zenbait komunikabidetan iragarkiak argitaratzeagatik izandako gastuei buruz eta eman zitzaien informazioa ikusirik, hau da, Diario de Noticiasen 3400 euroko gastua eta Berrian 4300 euroko gastua ikusirik, hainbat galdera egin ditu honako zentzuarekin:

Zeri dagokio gastu hau eta nola igo da hainbeste 2015etik?
Martinez Urionabarrenechea Alkateak erantzun dio hirigintzako espedienteen tramitazioari dagokion legeak eskatzen dituen argitalpen ofizialei dagozkienak direla eta kantitate hauek gero espedienteetako sustatzaile interesatuei eragiten diotela.

Zergatik argitaratzen dira Berria eta Diario de Noticias egunkarietan eta ez Diario de Navarra egunkarian?

Martinez Urionabarrenechea Alkateak erantzun dio Gobernu Taldeak horrela erabaki zuela hori zelako bere irizpidea eta horrela agertzen dela osoko bilkuraren batean. Gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzea erabaki zen. Euskararen kasuan, Berria egunkaria aukeratu zen eta Gaztelaniako kasuan Diario de Noticias aukeratu zen eta ez Diario de Navarra lehenengo horrek ale-kopuru handiagoa duelako beraiek duten informazioaren arabera.

Egiten diren argitalpen hauekin legea betetzen ari al da?

Udaleko Idazkariak erantzun dio Nafarroako Hirigintzako eta Lurralde Antolamenduko 2002/35 Foru Legeak Nafarroan editatutako bi prentsa komunikabidetan argitaratzea eskatzen duela.

2.- Eskea: AU Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak honako eskaera hau egin du Udaletxeak argitaratzen dituen iragarki hauen inguruan:

Ordaintzen diren kantitate altuak ikusirik gaia aztertu beharko litzateke.
Erabilitako argudioek ez dutela konbentzitzen eta pentsatzen du gardentasun printzipioa betetze aldera Diario de Navarra egunkarian argitaratu beharko liratekeela Nafarroan ale-kopuru handiena duen komunikabidea baita, eta horren gainean daturen bat emanez du.
Berria egunkaria ez dela Nafarroan editatzen, bere errotatiba Andoainen baitu eta hori dela eta, ez da legea betetzen ari.
Hori dela eta, Comptos Ganberari gastu honen nondik norakoaren txosten bat egiteko eskatzea eskatu du, gehiegizkoa iruditzen baitzaio.

Martinez Urionabarrenechea Alkateak erantzun dio, halako eskaera egiteko, beharrezkoa dela legezko prozedura jarraitzea eta honek eskatzen dituen gehiengoak onartzea, eta idazkariak erantzun dio bidezkoa izanen zela Toki Entitateen Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko araudia onartzen duen EDko 94. artikuluaren edukiaren arabera mozio gisa planteatu behar litzatekeela.

3.- Eskea: AU udal taldeko Perez Arregui zinegotziak Udalak argitaratzen dituen iragarkien gai honen gainean hurrengo eskaria egin du: Comptos Ganberari kasu honen inguruko legea betetzearen inguruko txosten bat eskatzea eta Ultzamarentzat iragarkiak bi komunikabide hauetan egiteak dituen ondorio ekonomikoei buruz eta ez ale-kopuru gehien duen Diario de Navarran.

Martinez Urionabarrenechea Alkateak bere aldetik aurreko eskariari eman zaion erantzun berdina eman dio eta adierazi zaio hori dela Gobernu Taldearen irizpidea.

4.- Galdera: AU Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak iragarki argitalpenengatik prentsa baliabide ezberdinetan egindako gastuen gaiaren gainean galdetu du ea zergatik dagoen bi komunikabideen arteko prezioan diferentzia eta erantzun zaio gehienbat argitaratu beharreko iragarki konkretuan egoten dela diferentzia, tamaina, hedapena, eta abar...